

Made in Spain

TXILLARDEGI



AURTENGO udan

'XIII. Cursos de Verano' delakoako antolatuta ditu UPV delakoak ('Universidad del País Vasco', jakina). Egun

hauek antze ikusi ditugu Fakultateetako hormetan gai-zerrendak eta gainerako zertzeladak.

Hamabost sail daude aurtin. Bat euskaraz, eta gainerako hamalauak gaztelaniaz. % 6 bakarrik geure hizkuntza... Uste duzue kataluñako uda-ikastaroetan % 94a gaztelaniaz burutzen direnrik?

Hori bakarrik ez. Euskaraz egingo den sail bakarra, hau da: 'H Saila: Hizkuntza eta Literatura'.

Frantsesez ez dago sailik batera; baina gaztelaniaz hamalau. Euskaraz ez dakiten iparretarrek zer diote 'Cursos de Verano' hauen antolatzaileek?

«La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea prestará particular atención al estudio de la cultura vasca; y dentro de ella al euskara, especialmente en sus aspectos científicos y técnicos» (Estadutos de la Universidad del País Vasco, Art.8; 18 de Marzo de 1985; Decreto 70/1985).

Badirudi, legea eskutan, XIII. Udako Ikastaroen antolatzaileren kontra, erabaki gogorak hartu behar liratekeela. Batez ere Jose R. Etxebarria, Gorostiaga, Xamardo, eta gainerakoen aurkako gogorkeria ikusita.

Baina, gauden lasai!
'Cursos de Verano' horietan (eta ez horietan bakarrik) euskara ostikoptezea ez da bekatu. Buesa lekuko aparta!

Bekatu bakarra hemen Euskal Unibertsitatean eta Euskal Herrian sinestea.

'Made in Spain' guztiak, zilegi eta eskalafoi-iturri.

Konplexuak

XABIER OLEAGA



BETI

eraman izan dituzte apur batekin, zenbait jenderen aurrean, nire ehizarako afizioa. Disulparako helbururik gabe,

aitortu dezadan ez dudala kontraesan eta kontzientzia txarrik gabe daramadan ohi-tura: Baina seme-alabak txikiak ditugunok, edo eteko sekretuak gordetzeari renuntzia egiten diogu, edo jai dugu. Gure alaba Iratik, bost urte maitzean gaixoak, behin baino sarrago traizionatu du aipatu dudan nere diskrezioa, bere babesa lagunaren artean fin-katu nahian aita ehiztaria duela harro harro exhibitu duenean.

Konsueloa, hala ere, Aitorrek bere gurasoi egin ziena jakitean hartu nuen. Iratik ehiztaria nintzela ageri bezain laster, Aitorrek bere aita ehiztaria bakarrik ez, polizia ere bazela ihardetsi zuen.

Gureari handiegia iruditu zitzaion Aitorrek esandakoa eta ez zegoen hura irensteko prest, konfirmazio autorizaturik gabe behintzat. Ikastolatik irteetan bere amari kontatu zion entzundakoa, Aitorren ama bera ere, zoritxarrek gaixoak, aurrean zeukala. Gure sorpresa handia izan zen, hilabeteetako tratuan inoiz ez baitzitzagun mutikoaren aitaren ofizioaren pistorik eman, baina handi-diagoa ama inguratuaren larria eta haserrea zera erantzutean: «Baina Aitor, aitatxo ez da ehiztaria». Ertzaina zela jakin genuen.


Irati poz-pozotzi etorri zitzaigun. Aitorrena exagerazioa zela konfirmatu ondoren. Ni neu ere, lasaiago geratu nintzen. Ehiza zaletasunak baino konplexu intenoegoak eragiten dituenik ba omen dago.

DEIA

Seriotasun falta

ETAk bere iritzi artikulua idatzi du, azken hiruhilekoaren inventarioa egin du eta 'Egin' egunkaria igorritako artikulua batean 'Egun, Espainiako Estatuaren eta EAJren asmoa EA lehartarazi eta hondarrak EAJ- ra itzularaztea da' baieztatu du. Carlos Garaikoetxeak (...) ideia berehala ontzat eman eta bere kabuz horretaz, konturatzeko ETArek beharra ez zutela gehitu zuen, 'baina pozen gainu aspalditik salatzen ari garena agerian gelditu izanak' erantziz.

Egia esan, kontua hala jokatzea baita, ez zait oso serioa



Oh! Abokatzu betetako autobus batek oraintxe bertan jo du tabernetara kontra. Urtejan egon gintzeko hemen. CHICAGO TRIBUNE

iruditzen. Ez du ematen oso harra izatea ideia hori agerikoa serioa denik EAko lehendakariak ETArek adierazpenen be-serioa denik KASek idaztea ez

dela komenigarria EAJk bere hauteskunde emaitzarik onenak berriro ere lor ditzan; ez eta EAK PSE-PSOErekin bilerak egitea (baita PPrekin ere), PSN-PSOErekin kolaboratzea, eta orain horrelako zerbaitekin ateratzea ere. Edozein azterketa serioik, bide ematen du pentsatzeko ez KASi ez sozialistei ez zaiela interesatzen EAJ berriro baita egotea, ez eta, ETAk dioten bezala, EAren pusketekin izanda ere; hots, nolanan ere, alderdi horren hautesle gehienekin eta zuzendarezaren eta atxikimendu handieneko militantiaren gutxiengoarekin. Zalantzarik duenak galde diezaiela Gipuzkoako sozialistei.

JOSE FELIX AZURMENDI

ZUZENDARIARI

Arregi Jauna; HABE euskaltegiak ez itxi

HABEko Euskaltegiei buruz Arregi Jaunak lehengo batean Euskadi Irratian, eta aspalditik komunikabideetan, egin dituen azalpenekin haserre sentitu bagara ere, herenegun Buesa Jaunak Euskaltegiak bere ardurapen hartuko litzukeela irakurritakoan poztu egin gara. Izan ere:

- 1.- HABEko Euskaltegiak ez lirateke itxiko.
- 2.- Arregi Jauna aspalditik esaten ari zaigu HABEren arazoa ez dela Kultura Sailburuarena; Hezkuntzara aldatuko bagina, bera bakean utziko genuke behingoz.
- 3.- Funtzio Publikoko Makazaga Jauna aspaldi gu non egokitu ezinik dabilenez, lanak erraztuko genitzeki.
- 4.- Inoiz ez dugu dagokiguna baino gehiago eskatu. Hau da, euskarazko irakasle edota funtzionari dozentek bati dagozkion baldintzak. Hezkuntzan sartuz gero, arazo hau konpondua legoke.
- 5.- Argi eta garbi esaten da Hezkuntza Sailak irakasleak behar dituela; eta hementxe gaude 60 bat irakasle prest.
- 6.- Gainerakoan, Administrazioan sakanatuta, dakiguna alferrik galdu ezezik ezagutzen ez ditugun ariotan lan egin beharko genuke.

Honela bada; Arregi Jaunaren gutizia pertsonala ez bada, edota, ezkutuko politika ulertezin baten ondorio bestela, ate horiek zabaldu eta irtenbide itxuroso bat eman diezagun itxu-

rarik gabeko istilu honi. BEGOÑA MATXAIN (HABEko Irakasle Kolektiboko partaidea)

Lontxo Oihartzabalen joku zikina

Lehengo egunean Lontxo Oihartzabalek idatzitako 'Propagandaren joku zikina' artikulua ikusita, zera zehaztu beharrenez:

- a) Sare publikoan sartu garen Ikastolak Ikastolen Elkartearen sorreran egon ginen, gaur egun Ikastolen Elkartearen barruan gaude eta etorkizunean bertan jarraitzeko asmoa dugu.
 - b) Ikastolen Elkartearen egitura eta lan-gileak geuk ere mantendu egiten ditugu gure kuoteren bitartez.
 - c) Ikastolen Elkartearen barruan sortzen diren proiektu eta kanpaina guztietan hartzen dugu parte.
- Eskubide osoa dugu, beraz, guk sortu dugunaz baliatzeko eta horrela egin eta egingo dugu. Aurrematrikula kanpainen Herri Ikastola guztiek jakinarazi dugu publikoak garaia, baina argi dago hori ez dela geure izaeraren ezagutza bakarra, ezta funtsezkoena ere. Gure historia oso luzea da eta orain arte egin duguna eta gaur egun egiten jarraitzen duguniaz harro gaude eta hala adieraziko dugu beharko dugun guztietan.

JESUS MARIA AZANZA ARBIZU Bilbo

Etorri handiko Seguroa horri

Oraintsu arte idatzi duan biziki hunkitu nauk; hala ere 'Pasaia 84' honetan darina gehikeria hutsa delakoan nagok. Zer erakutsi nahi duk Ezker Abertzalearen kontra botatzen dituan irainekin?

Gogorazari behar dizkiet hik hain zinkoki diritzan 'Holding' horrek egunero eta ankerkeria pairaezinez softizten dituen eraso latzak?; etsiak eusten dion suari dohaimeko egurra gehitzea baino ez dela egin duana?, eta historiko honetan Euskal Herriko abertzale guztiak batzeko egiten ari diren esfortzu miresgarria horrelako idazkiekin ezerezean gera daitekeela? Nahikoa duk! Hik heuk ikusten ez baduk herri honek bizkar gainean daraman mila tortura, mila hildako drogak nahiz txakurrek izenpetuak, mila oztipo herriarengandik ateratzen den edozer aurrera eramateko... Zerrenda amaigabe bat ozeki idazteari ekingo banio ere, lasai askoan hurrengo artikuluxka poliki eta jantzia, hizkuntzaz goxatzen, idatziko duala susmoa zeukeat.

Barregura eta aldi berean negargura eragiten zizkidatek hi bezalako Intelektualilo bilerak; Kaosa aldarrikatzen duzen horiek. Non idatziko hituzkeen hik heure eritzi xarman eta eskandalagarriak Herri honek duen batasun apurra izan ez balu?

JOSU OKARIZ SENOSIAIN Gasteiz

GAIA JARRITA

Xerox Getxo

Iaz bezala Getxok jo du ostikada, estatuko rugby-puntan hara! Bakarrik falta denez azken bultzakada, gauza nturalena jarririk hortara, eskura dagoena eskuratzea da.

IGOR ELORZA

Egunkaria

Batzorde Parkeak: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

JKDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDUI

Kontseilari Ordezkaria: ISAKI URUA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitateak: PUBLICITAS

Capitán Haya 1 2.a 28020 Madrid - w: 91 555 11 01 / Faxu: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Talerria: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria - w: 37 15 45 / Faxu: 36 54 93

Egiltza soziala, Publizitate eta Administrazioa: Antso Jakitona, 16 / 20010 Donostia - w: 46 90 22 / Faxu: 45 99 57

Araba: San Antonio, 20 - Lekeor, 01005 Gasteiz - w: 23 38 72 / Faxu: 23 38 73

Nafarroa: Inxte Monastegia, 45-13 esk. / (Iritziak domea) / 31011 Iruñea - w: 17 80 7879 / Faxu: 17 80 77

Bilbao: Zabalburu Enparantza, 2-1. lekerra, / 48003 Bilbo - w: 410 40 46 / Faxu: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, / 1.503 Posta kutsatila, / 64100 Baiona - w: 59 59 35 75 / Faxu: 59 25 75 11